



Arrieta

etxebizitza

Aldacrak: Arieta
Ahozkoa: Arieta



43° 11' 12"

2° 34' 5"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Arrieta... situada en el barrio de San Lorenzo, jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende con inclusión de su antusano horno y tejabana zaguan y un poquito de huerta doscientos noventa y seis estados equivalentes a mil cuatrocientos y dos metros de cabida, y la que se compone de piso bajo y alto, con sus correspondientes cuadras y divisiones y habitaciones..."
DJE 2/167or. (1868)

Arrieta baserri aurrean dugun eraikin akzesorioran "1840" agertzen bada ere, data hori eraikin horrekin lotuta dago, baserriaren gainean topatutako arrasto dokumentalak XVIII. mende hasierakoak baitira, *Arrieta* (1704, Bizkaiko su-errolan). Hortik aurrera dokumentazioan aldaera batzuk agertzen dira, batzuetan tarteko →r bat galtzen duelarik: *Arietta* (1758, BAHP, A460/32), *Arieta* (1859, BUA, Nmcr), *Arrieta* (1865, DJE, 1/ 168. orr). XIX. mende amaieratik eta XX. mendean zehar, kontsultatu ditugun zentsoetan *Arieta* era dokumentatzen da gehienetan. Forma hau da, *Árieta*, ahozkotasunean erabiltzen dena.

XIX. mendean ohikoa bihurtu zen estiloan jasotako baserria da. Hau da, zabaleran barik, goranzko tendentzia aintzat hartzen duena. Pisu bi eta ganbara ederreko etxea da, goian alderik aldeko balkoia duena, egurrezko beso handiek eutsia. Sarrerako ate zabala teilatuko gailurraren arabera jarrita dago eta, gaineko balkoi luzea eta aldamenetako leiho denak lez, harlandu ederrez eratutakoa da. Isuri biko teilatua badu ere, ez da simetrikoa, ezkerrean zabalagoa delako. Honetan ere, atea eta bestearekin lerrotatutako leihoak harlanduzkoak dira. Azkeneko berriztatzean hormetako harlangaitza bistara atera diote, baina bere egunean luzitu eta pintatuta egongo zen.

toponimia

Leku izen arrunta eta argia "harri asko dagoen lekua" adierazten duena. Arrieta oso toponimo arrunta da Euskal Herri osoan eta Hegoaldean, esaterako izen hau duten etxeak daude, edo egon dira, ondoko herrietan- Araban Iruraitz-Gaunan; Bizkaian herri izena izateaz gain, hau eta Elorrioko Miota auzoan; Gipuzkoan Altzan, Amezketan, Beasainen, Villabonan, Donostian, Gaintzan, Hernanin, Oiartzunen, Soroluzen, Zegaman eta Zizurkilen; Nafarroan Zigan dugu. Iparraldean Harrieta da alderean.